

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Iruñeko II. Zabalguneko 4.482 biztanle koloneko minbizia garaiz detektatzeko programan sartu dira

*Testa egiteko gonbidapenak bidaltzen gaur hasi dira eta, test horri esker, fase goiztiarretan lesioak aurkitzea eta kasuen % 90ean haiek sendatzea lortzen da*

Martes, 26 de mayo de 2015

50 eta 69 urte arteko Iruñeko II. Zabalguneko 4.482 bizilagun [koloneko minbizia garaiz detektatzeko programan](#) sartu dira aste honetan; hala, gaurtik aurrera eta irailaren 8ra arte, programan parte hartzeko gonbidapenak bidaliko dira, etxean bertan proba erraz bat egin ahal dezaten.

Haiekin, jadanik 68.000 nafarrek jaso dute programan parte hartzeko gonbidapena, ekimen hau zuzentzen den adin-tarte horretako 166.000 pertsonatatik % 40 inguruk. Kanpaina hori Nafarroako Gobernuak jarri zuen abian 2013ko azaroan, kolon eta ondestean izan daitezkeen tumoreak detektatzeko asmoz garapen-fase goiztiarretan eta, hala, kasuen % 90ean tumore horiek sendatu ahal izateko.

II. Zabalgunearekin, jadanik Iruñeko 11 auzo sartu dira programaren barnean (San Juan, Milagrosa, Ermitagaña, Buztintxuri, Mendillorri, Iturrama, Etxabakoitz, Azpilagaña, Txantrea eta Alde Zaharra-I Zabalgunea), bai eta Tuteran, Lizarra, Huarte, Izaba, Atarrabia, San Adrian, Auritz eta Corellako oinarritzko gunek ere. Datozen hilabeteotan Arrotxapea eta San Jorge Iruñeko auzoak sartzea ere aurreikusita dago, eta baita Sarriguren (Egues) ere, [programaren egutegiak](#) adierazten duenez. Programa 2017an zabalduko da erabat Nafarroako geografia guztira.

Gogora ekarri behar da, Nafarroan, kolon eta ondesteko minbizia



emakumeen artean heriotza gehien eragiten duena dela, bularreko minbiziaren aurretik, eta bigarrena gizonen artean, biriketakoan atzetik. Urtero 500 kasu inguru detektatzen dira eta 200 heriotza eragin.